

HARTU PARTE

hezkuntza eskubidearen alde!



**Lehen eta bigarren hezkuntzarako
proposamen didaktikoa**

HEZKUNTZAREN
Aldeko Mundu-Kanpaina

Edukiak

Sarrera 1

Alderdi orokorrak
Helburuak

Lehen Hezkuntza 2

1. Blokea: Eskolara etortzen naiz, horretarako eskubidea dut eta
2. Blokea: Letrak eta zenbakiak baino zerbait gehiago
3. Blokea: Nolakoa da egoera?
4. Blokea: Ekintza-garaia da. Hartu parte hezkuntzaren aldeko giza katean

Bigarren Hezkuntza 9

1. Blokea: Hezkuntza eskubidea da
2. Blokea: Pertsona guztientzako hezkuntza: beharra eta helburua
3. Blokea: Ekintza-garaia da. Hartu parte hezkuntzaren aldeko giza katean



Sarrera

Alderdi orokorrak

- Proposatzen dugun denbora-banaketa gelaren beharren arabera egoki daiteke.
- Jardueretan argibide orokorrak daude, lehen eta bigarren hezkuntzarako, eta, beraz, egokitu egin daitezke lantzen ari garen zikloaren edo ikasleen mailaren arabera (adibidez, bigarren hezkuntzako jarduera batzuk batxilergora egoki daitezke).
- Unitate didaktikoetan “eskola” hitza erabiltzen dugu irizpide metodologikoak direla eta, baina “ikastetxe”, “hezkuntza-zentroa”... edo antzekoak ere erabil genitzakeen.
- “Irakasle” terminoa erabiltzean irakaskuntza formaleko nahiz ez-formaleko hezitzaileez, bideratzaileez ere ari gara.
- Blokeetan, jarduera bat baino gehiago proposatzen da, irakasleek egokiena aukera dezaten, taldearen adinaren, ezaugarrien eta abarren arabera.

Helburuak

Hezkuntzaren Aldeko Munduko Ekintza Astearen helburu orokorra

Erabakitzeko gaitasuna duten agintari politikoak eta iritzi publikoa sentsibilizatzea hezkuntzaren garrantziari eta berehala neurriak hartzeko premiari buruz, guztiok kalitatezko hezkuntza jaso ahal izan dezagun 2015erako. Beraz, aurtan, hezkuntza-eskubidean jarriko dugu enfasia.

Proposamen didaktikoaren helburuak

- Hezkuntza pertsonen eskubide unibertsal eta oinarritzotzat hartzea, Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalean eta Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenean ageri den legez.
- Pobreziaren aurkako lanean oinarritzko hezkuntzak duen garrantziaz ohartzea.
- Herritar aktibo gisa, bidegabeko egoerei aurre egiteko ardura hartzea eta denok errealitate hori aldatzeko zerbait egin dezakegula ohartzea.

Lehen Hezkuntza

1. BLOKEA: Eskolara etortzen naiz, horretarako eskubidea dut eta

Helburua

Neska-mutilek hezkuntza-eskubidea erabili ahal eta behar duten munduko inguru batean bizitzearen garrantziaz konturatzea.

Edukiak

Kontzeptualak

- Eskolara joatea eskubide ofizial bat erabiltzearekin lotzea.

Jarrerazkoak

- Hezkuntza balioestea.
- Aukera hori izan ez duten inguruko pertsonak errespetatzea.

Prozedurazkoak

- Elkarrizketa eta eztabaida.
- Ikerkuntza.
- Informazioa trukitzea.
- Ondorioak lortzea.

Jarduera

1. Zergatik etortzen gara eskolara?



1. Ekintza: Zergatik etortzen gara eskolara?

Banakako jarduera:

Eskatu ikasleei hausnartzeko zergatik joaten diren eskolara eta erantzunak koadernoan idazteko.

Ondoren, galdetu ea ezagutzen duten inor eskolara joateko aukerarik izan ez duenik. Beren aitona-amonei, gurasoei edo bizilagunei ere galde diezaiekete.

Taldeko jarduera:


Galdera horren erantzunak -hausnarketak nahiz lortutako informazioa- bateratu, eta arbelean idatzi.

Erantzun horiek abiapuntu hartuta, informazioa hainbat mailatan banatu (adibidez, baliabide ekonomikorik eza edo hezkuntzari garrantzi txikia ematea). Informazio hori gelan jarriko den horma-irudi batean idatzi, eta erreferentzia gisa erabili proposamen didaktikoaren lana egitean.

Erantzunen bidez, hezkuntza-eskubidearen kontzeptua barneratzen joan daiteke irakaslea.

Denbora:

50 minutuko bi saio.



2. BLOKEA: Letrak eta zenbakiak baino zerbait gehiago

Helburua

Hezkuntza-eskubidea hainbat dokumentu juridikotan jasota dagoela jakitea, eta dokumentu horiek sinatzen dituzten herrialdeek eskubide hori betetzeko obligazioa dutela.

Edukiak

Kontzeptualak

- Legeen eta errealitatearen arteko aldeak adierazten du aldaketak, mantso gertatu arren, gertatzen direla.

Jarrerazkoak

- Neska-mutil guztientzako hezkuntza-eskubidea aldarrikatzea.
- Gizarteko arazoetan parte hartzea.

Prozedurazkoak

- Liburu-bereizlea egitea.
- Gertaera historikoak aztertzea.

Jarduera

1. Non aintzatesten da nik erabiltzen dudana eskubidea?




1. Ekintza: Non aintzatesten da nik erabiltzen dudana eskubidea?

Neska-mutilak ez dira beti hartu izan eskubidedun pertsonatzat.

Bi mundu-gerren ondoren jaso zuten babes juridiko handiagoa, gerra horietan haurrak izan baitziren kaltetuenak.

Eskatu ikasleei liburu-bereizleak ebakitzeko eta margotzeko. Bereizle horietan haurren eskubideei eta hezkuntza-eskubideari buruzko gertaera garrantzitsuak agertzen dira. Ikasleek beraiek ere egin ditzakete bereizleak, eta testuak kopiatu. Bereizleak lagun bati edo familiako norbaiti oparitu diezaiokete, eta, bidez batez, eskolara joatean eskubide bat gauzatzen ari direla azaldu. Bereizleak ordezkari politikoei ere bidal diezazkiekete. [\(Ikus separata\)](#)

IKUS SEPARATA



Denbora:
50 minutuko saio bat.



Nazio Batuen Erakundea (NBE) sortu zen, eta hark UNICEF sortzeko agindu zuen, haurren eskubideak babesteko.

1945

New Yorken egoitza duen Nazio Batuen Batzar Orokorrak Haurren Eskubideen Deklarazioa egin zuen.

1959

Abenduaren 6an espainiarrek Konstituzioa onartu zuten erreferendum bidez. Honela dio 27. artikulua: "Denek dute hezkuntza jasozteko eskubidea. Oinarrizko hezkuntza derrigorrezkoa eta doakoa da".

1978

NBEn HAURREN ESKUBIDEEI buruzko hitzarmena onartu zuten, aho batez. Hitzarmen horrek dioenez, haur guztiak dira eskubideen jabe; besteak beste, hezkuntza-eskubidea.

1989

2000n nazioarteko komunitateak Dakarren (Senegal) egindako bileran, zenbait oinarrizko helburu onartu zituen Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalean jasotako hezkuntza-eskubidea betetzea bermatzeko.

2000

Nazioarteko komunitateak berretsitako Milurtekoko Gailurrean, mundutik pobrezia kentzeko bete behar diren oinarrizko zortzi helburu zehaztu ziren (Milurtekoko Garapen Helburuak). Helburu horietako bi hezkuntza-atorrekoak dira, eta bat datoz Dakarrekoekin.

2000

3. BLOKEA: nolakoa da egoera?

Helburua

Munduan hezkuntza-eskubidea egiazki nola erabiltzen den jakitea.

Edukiak

Kontzeptualak

- Hezkuntza-alorreko gastua.
- Guztiontzako hezkuntzari buruz gobernuek abian jarritako ekimenak.

Jarrerazkoak

- Alternatibak eta erantzunak erakitzea.
- Aurrerapenak eta atzerapausoak aitortzea.

Prozedurazkoak

- Informazioa aztertzea.
- Mailaka banatzea.


Jarduera

1. Alderatu konpromisoak eta benetako egoera.
2. Esatetik egitera alde handia dago... labur dezagun tartea.
3. Ipuin-kontalaria.



1. Ekintza: Alderatu konpromisoak eta benetako egoera

Eman ikasleei informazio hau, taulako laukiak kalkulatu eta bete ditzaten:



ERABILERA	MILIOI €
Guztiontzako oinarritzko hezkuntza	6.000
Munduko gastu militarra	780.000

Galdetu ikasleei zer iruditzen zaizkien zifra horiek, eta eskatu talde txikian horri buruz hitz egiteko. Ondoren, hitz egindakoa bateratu.

Denbora:

50 minutuko bi saio.

Lehen Hezkuntza



2. Ekintza: Esatetik egitera alde handia dago... labur dezagun tartea

Batetik, deklarazio unibertsalen eta gobernuen konpromisoen eta, bestetik, munduko benetako egoeraren artean alde handia dago, batez ere herrialde batzuetan. Baina, guztion artean, arduradunei konpromiso horiek betetzeko eskatzen badiegu, munduko neska-mutil guztiei beren hezkuntza-eskubidea erabiltzen lagunduko diegu.

IKUS SEPARATA



Esan ikasleei puzzle bat egiteko, koloretako post-it-ak erabiliz. Post-it horietan, taula honetako informazioa edo zuek hainbat iturritatik lortutakoa (ikus "Gehiago jakiteko..." atala karpetaaren kontraportadan) idatzi behar dute. Erabili hainbat kolore informazio-mota bakoitzerako (adibidez, kolore bat lortutako hobekuntzak idazteko, beste kolore bat lortzeke dagoena idazteko, beste bat gobernuek egindako ekimenak idazteko...).

Puzlea ordezkari politikoei bidal diezaiekezue (ikus **EKINTZA-GARAIA DA. HAR EZAZU PARTE HEZKUNTZAREN ALDEKO GIZA KATEAN separata**).

Denbora:
50 minutuko bi saio.

Post-it-etako informazioa

Munduan 15 milioi irakasle gehiago behar dira, lehen hezkuntzako neska-mutil guztiak eskolatu ahal izateko.

Guztionezko hezkuntzaren aldeko proiektuaren estrategiak emaitza onak izan ditu milioika neska-mutilentzat: gaur egun, 21 eskola gehiago daude 1999an baino.

Munduko 77 milioi haur eskolatik kanpo daude oraindik.

Zambiako gobernuak konpromisoa adierazi du guztionezko hezkuntzaren helburuak lortzeko. Oinarrituko hezkuntzako matrikulazioa %20 hazi da 2000 eta 2004 artean.

43 milioi neska-mutil ez dira eskolara joaten gatazka armatuak direla eta.

Gaur egun, 5.800 milioi euro gehiago zuzendu behar dira gatazkek erasanda dauden herrialdeen hezkuntzarako.

Txaden, 100 haurretik 42 ez dira eskolara joaten.

Kalitatezko hezkuntzak lehentasuna izan behar du ekintza humanitario orotan. Askotan, gatazkek dauden lekuei larrialdiko laguntzak ematean, hezkuntza ez da kontuan hartzen.

Gobernuei eta nazioarteko erakundeei eska diezaiekegu guztiok -gazteek nahiz helduek- kalitatezko hezkuntza izateko behar diren politikak martxan jarri eta baliabideak erabiltzeko.

Lehen hezkuntza unibertsala 50 herrialdetan bakarrik lortu da.

Diru-sarrera gutxi herralde askotan oraindik ez dauzkate behar den baliabiderik neska-mutil guztiak eskolatzeko.

Munduko buruzagiek Dakarreko deklarazioan esan zuten "guztionezko hezkuntzarekin konprometitutako herrialdeen helburua ez da zapuztuko baliabide-faltagatik", baina hori ez da guztiz bete.

Managuako –Nikaraguako hiriburua– La Chureca hondakindegiko haurrek orain arte ez zekiten, munduko haur guztiek bezala eurek ere eskubideak dituztela, eskolara joan daitezkeela...



3. Ekintza: Ipuin-kontalaria

Idatzi arbelean gisa honetako hitzak:

- neska-mutilak
- uholde-auria
- anai-arreba txikiak
- hezkuntza-eskubidea
- urrun
- amak ez daki irakurtzen eta idazten

Hitz horietan oinarrituta, eta orain arte landutakoa eta hausnartutakoa kontuan hartuta, eskatu ikasleei ipuin bat idazteko.

Denbora:

50 minutuko saio bat.



Lehen Hezkuntza

4. BLOKEA: Ekintza-garaia da. hartu parte hezkuntzaren aldeko giza katean

Helburua

Mundu osoari dagozkion gaietan (adibidez, guztiok hezkuntza jasotzeko dugun eskubidea) erantzukizuna badugula ohartzea.

Edukiak

Kontzeptualak

- MGH (Milurtekoko Garapen Helburuak).
- Guztiontzako hezkuntza lortzeko konpromisoak.

Jarrerazkoak

- Parte-hartzea.
- Inplikazioa.
- Erantzukizun soziala.

Prozedurazkoak


- Talde-lana.
- Dortsalak egitea.

Jarduerak

1. Hartu parte hezkuntzaren aldeko giza-katean.
2. 2015erako eginbeharrak.



IKUS SEPARATA



1. BLOKEA: Hezkuntza eskubidea da

Helburua

- Giza eskubideak identifikatzea.
- Eskubideek pertsona guztion bizitzan duten garrantzia aztertzea.
- Hezkuntza-eskubideak pertsonen eta gizartearen garapenean duen garrantzia onartzea.

Edukiak

Kontzeptualak

- Eskubideak.
- Eskubidearen definizioa.
- Hezkuntza-eskubidea.

Jarrerazkoak

- Eskubideen erabilera ebaluatzea.
- Guztiontzako hezkuntza lortzeko konpromisoa hartzea.

Prozedurazkoak

- Elkarrizketa.
- Hausnarketa.
- Análisisa.

Jarduerak

1. Pertsona guztien eskubideak.
2. Haur ahantziak.



1. Ekintza: Pertsona guztien eskubideak

Idea-jasa batekin hasiko gara: burura etortzen zaizkien eskubideak esan behar dituzte, ahoz, ikasleek, eta egun horretan erabili dituzten eta une horretan erabiltzen ari diren eskubideen zerrenda bat egin.

Ondoren, giza-eskubideei buruzko testu bana eman ikasleei. Interneteko web gune hauetan dago testua:

— Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen Goi-komisarioaren Bulegoa.
<http://www.unhchr.ch/udhr/lang/bsq.htm>

— UNICEF. www.unicef.org

— Amnesty International: bertsio osoa eta murriztua, gaztelaniaz eta katalanez (www.amnistiacatalunya.org/educadors/docs/index.html), eta Quinok irudizatutako bertsioa Mafaldaren azalpenekin (<http://www.amnistiacatalunya.org/educadors/humor/mafalda/>).

Testua irakurri ondoren, eskatu taldeari eskubideei buruz hitz egiteko eta "eskubide" hitzaren definizioa egiteko. (Interneteko konexioa izanez gero, Interneteko definizioak bila daitezke, adibidez, helbide honetan: es.wikipedia.org o www1.euskadi.net/hizt_el/indice_e.htm). Eskubide-kontzeptuari "ongiaren" kutsua ematea gomendatzen dugu.

Ondoren, egunkarietako izenburu hauek banatu ikasleei. Izenburu horietan adierazten diren eskubideak aipatu eta eskubide horiek erabili edo urratu egiten diren adierazi behar dute.



Bigarren Hezkuntza

12/OPINIÓN DEBATE EL PAÍS, domingo 27 de junio de 2009

Eskola eta inmigrazioa

Uso de los aspectos más importantes del desarrollo de la inmigración en el papel que cumple la escuela como factor de integración en la sociedad de acogida. La experiencia vivida en el último cuarto de siglo en Europa, especialmente en Francia, revela las complejidades y los desafíos de este proceso. En España, donde el fenómeno es más reciente, se añaden los desafíos de la primera ola de inmigración, de un proceso migratorio reciente que responde a la demanda de mano de obra en el sector de servicios y en el de la construcción.

Integratzeko heztea

SABINO URKIZU

Integratzeko heztea, baina, ez da bakarrik irakaskuntza ematea, baizik eta irakaskuntza emateko modua ere erabakitzea. Irakaskuntza emateko modua, baina, ez da bakarrik irakaskuntza ematea, baizik eta irakaskuntza emateko modua ere erabakitzea.



The New York Times EL PAÍS

Haurrek lan egiten duten lekuan, ez dago jolasrik

Familias africanas que dependen de sus hijos

12/OPINIÓN DEBATE EL PAÍS, domingo 27 de junio de 2009

Ez dago konpromiso globalik hezkuntzan inbertitzezko

2.000 milioi haurretatik % 80 baino gehiagok zigor fisikoak jasaten ditu

12/OPINIÓN DEBATE EL PAÍS, domingo 27 de junio de 2009

Munduan hiru adin txikiko eta 1.400 emakume hiltzen dira minutu bakoitzeko

12/SOCIEDAD Salud EL PAÍS

Txertaketan eteteak Afrikako hamabi herrialdetan berriro poliomielitisa herrialdea ekarri du

SAHILIA PUBLICA / Los países africanos apenas pueden frenar la expansión de la enfermedad

Elkarbizitzarako eskola

12/SOCIEDAD EL PAÍS, domingo 27 de junio de 2009

El futuro, sin embargo, no es alentador ya que la cifra de los

Elkarbizitzarako eskola, baina, ez da bakarrik irakaskuntza ematea, baizik eta irakaskuntza emateko modua ere erabakitzea.

12/SOCIEDAD EL PAÍS, domingo 27 de junio de 2009

Herrialde pobreei ematen zaien laguntza hirukoitzeta eskatu du UNESCO, haur guztiak eskolatu ahal izateko

La inversión nacional en educación ha disminuido en 41 países de Asia y América desde 1999

AYUDA DESTINADA A EDUCACIÓN BÁSICA

Matsuno, director general de la UNESCO, quien emitió un comunicado.

12/SOCIEDAD EL PAÍS, domingo 27 de junio de 2009

Ume bakoitzaren tratamendurako urtean 0,20 euro gastatuko balitz, haurren malarriaren % 20 ekidingo litzateke

La inversión como una fuente viable de los recursos de salud en el continente africano

Jean Ziegler, jaiotza-erantzulea de la ONU para la Alimentación

Haur bat gosez hiltzea hilketa da

12/SOCIEDAD EL PAÍS, domingo 27 de junio de 2009

UNICEFek salatu duenez, urtero 1,5 milioi haur hiltzen dira edateko urik ez izateagatik

El agua potable ha sido imprescindible para el desarrollo de todo el mundo no pocas veces por que no tienen acceso al agua potable en el mundo cada año 1,5 millones de habitantes de nuevo en todo el mundo. Así lo denuncia UNICEF en el informe 'Progreso para el agua'. Un informe sobre el agua y saneamiento, que presenta el estado de la situación de acceso al agua potable en el mundo. El informe hace un balance de los progresos en el campo del agua potable y el saneamiento.

12/SOCIEDAD EL PAÍS, domingo 27 de junio de 2009

OMERen datuen arabera, jaioberrien heriotzen ia %90 ekidin daitezke

11 de los 130 millones de nacidos cada año no llegarán a cumplir los cinco años

12/SOCIEDAD EL PAÍS, domingo 27 de junio de 2009

Nazioarteko Auzitegi Penalak (NAP) Kongoko haur soldaduen kasu batekin estreinatzen da La Hayan

12/SOCIEDAD EL PAÍS, domingo 27 de junio de 2009

Ama eta seme-alaben hilkortasun-tasa orain dela 15 urtekoa baino handiagoa da Afrikan

Un informe de la OMS sobre el continente destaca el avance del sida, la tuberculosis y la malaria

17 países tienen una esperanza de vida menor que en 1975

12/SOCIEDAD EL PAÍS, domingo 27 de junio de 2009

"Sentitzen dut; zu ez zara existitzen"

Los inmigrantes traídos de Canarias quedan libres con un expediente de expulsión que

Ondoren, alderantzizko ariketa egin dezakete, hau da, eskubide bat aipatu, eta eskubide horri buruzko izenburua egin.

Denbora: 50 minutuko bi saio.



2.Ekintza: Haur ahantziak

Hasteko, "Gizateriaren zortzi erronkak" artikulua irakurtzeko eskatu ikasleei; ondoren, artikuluan aipatzen diren neska-mutilei urratutako eskubideak zerrendatu behar dituzte.

Ondoren, neska-mutil horien etorkizuna irudikatzeko eskatu: zer izen duten, zenbat urte, eta zer herrialdetan bizi diren imajinatu behar dute. Horretarako, lagungarri izango zaie:

— Egun horretan irakurriz edota idatziz egin dituzten ekintza guztien zerrenda egitea.

— Lekukotasun batzuk irakurtzea:

— Eskolatzeko-mailari, eskolatzeko-pobrezia erlazioari... buruzko egungo datuak biltzea. (Ikus "Gehiago jakiteko" atala, karpetaaren kontraportadan.)

Hausnarketa hori egin ondoren, egunkariko artikulua bat idatzi behar dute eskolako aldizkarirako edo inguruko egunkarietarako.

Denbora:

50 minutuko bi saio

"Gizateriaren zortzi erronkak"

Hezkuntza: Eskolatu gabeko ehun milioi haur

Eskolara joateko eskubidea berez betetzen dela uste da Mendebaldean, baina NBEren arabera, eskolatu gabeko 115 milioi haur daude garapen bidean diren herrialdeetan. Batzuek utzi egiten dute eskola; beste batzuk, berriz, inoiz ere ez dira eskolara joan. Milurtekoko helburuetako bat da 2015erako munduko haur guztiek lehen hezkuntzako ziklo oso bat, gutxienez, amaitzea.

Saharaz hegoaldeko haurren %42 eta Asia hegoaldeko haurren %36 analfabetoak dira. Beraz, eskolatu gabeko hamar haurretik zortzi bi lurralde horietan bizi dira. Familia pobreetako haurrak dira, hezkuntzarik gabeko amen seme-alabak, eta landa-eremuetan bizi dira. Gainera, HIESaren zama astuna jasan behar izaten dute, haurrak irakaslerik gabe geratzen direlako eta beren guraso gaixoak mantentzeko lan egin behar dutelako.

"Hori da errealtate latza", esaten du NBEk, eta gogorarazten du hezkuntza dela, seguruenera, HIESaren zabalkundea geratzeko modu eraginkorrenetakoa. Egoeraren alde positiboa Latinoamerikak, Karibek eta Ekialdeko eta Iparraldeko Asiak erakusten dute, lehen hezkuntzako matrikulazioen %100era iristen ari baitira. Baina, NBEk azpimarratzen duenez, eskola ez uztea eta kalitatezko hezkuntza eskaintzea da zailena. "Matrikulazioa borrokaren erdia baino ez da".

Sando Pozziren artikulua laburpena, El País egunkarian 2005eko ekainaren 13an argitaratutakoa.

Bigarren Hezkuntza

Indiako gizon bat atsekabe handiz ari zen negarrez, alabaren gorpua besoetan zuela; behin eta berriz esaten zion hau medikuari: "Irakurtzen jakin izan banu, ez nukeen nire hatz-marka utziko dokumentu hartan, ni eta nire familia betiko esklabo bihurtu gintuen dokumentu hartan".

Kailash Satyarthi, ekintzaile indiarra.

2006ko abenduaren 26an, tsunami batek Indiako Ozeanoko kostako hainbat herrialde suntsitu zituen. Egunkarietan albiste bat argitaratu zuten, Thaiandiako Phuket irlako hondartza batean gertatutakoa kontatzen zuena. Hamar urteko neska ingeles batek urak oso azkar atzera egiten zuela ikusi zuenean, bi aste aurrerago eskolan ikasitakoa gogoratu zuen, eta hondartzan zeudenei ohartarazi zien arrisku handian zeudela. Neskari sinetsi zioten turistak bizirik atera ziren.

Hezkuntza jasotzeko eskubideak eragin zuzena du pertsonengan eta gizarteetan, eta lehen mailako faktorea da garapenerako. Hala, munduko herrialde guztietan oinarritzko eskolatzea lortzea ez da nahikoa hezkuntza-eskubidetzat daukagun hori bermatzeko. Izan ere, hezkuntza-eskubidea diogunean, pertsona batek bere bizitza guztian ikasteko duen eskubideaz ari gara. Horretarako, hezkuntza kalitatezkoa izatea ezinbestekoa da giza eskubide horretaz gozatzeko. Kalitatezko hezkuntzarik gabe, ez dago garapen-aukerarik.

GLO (Garapenerako Laguntza Ofiziala) "Hezkuntza aztergai" atalean. Entreculturas eta Alboan, 2005.

2. BLOKEA: Pertsona guztientzako hezkuntza: beharra eta helburua

Helburua

- Hezkuntza ez jasotzeak pertsonengan eta herrialdeetan dituen ondorioei buruz hausnartzea.
- Pertsona guztiek aukera berdinak izan ditzaten parte hartzeak duen garrantzia baloratzea.

Edukiak

Kontzeptualak

- Guztiontzako hezkuntzaren onura sozialak.
- Eskolara joateko aukerarik gabeko orain eta geroa.
- Hezkuntzaren egungo egoera.

Jarrerazkoak

- Hezkuntzaren arloko egoera pertsonal positiboa baloratzea.

- Guztiontzako hezkuntzaren beharraz kontzientzia hartzea eta hezkuntza pertsonak eta herriak garatzeko oinarrizko behartzat jotzea.

Prozedurazkoak

- Hausnarketa pertsonala.
- Eztabaida.
- Datuen azterketa.
- Grafikoak eta horien irudikapena alderatzea.

Jarduerak

1. Hezkuntzarik ez jasotzeak zer eragin du pertsonengan?
2. Hezkuntzarik ez jasotzeak zer eragin du herrialdeetan?



1. Ekintza: Hezkuntzarik ez jasotzeak zer eragin du pertsonengan?

Proposatu ikasleei lehen-hezkuntzan eskolatutako haur-kopurua, eskualdeka (1998 eta 2002) taula taldeka aztertzeke.

Azterketa egiteko jarraibideak:

- Eskolatzeta-tasa garbiak aztertu, eta laguntza gehien behar duten munduko eskualdeak edo lurraldeak zehaztu.
- 2002an eskolatutako haur-kopurua datu hauekin batera baloratu:
 - 80 milioi neska-mutil ez dira eskolara joaten.
 - 150 milioi neska-mutilek eskola uzten dute idazten eta irakurtzen ikasi aurretik.

Azterketa egin ondoren, ondorioak atera, eta talde guztien ekarpenak bateratu.

Banatu ikasleei Yuleiniren istorioa. Proposatu ikasleei azter dezatela nola aldatuko litzatekeen Yuleiniren bizitza txikitzen eskolara joan izan balitz eta bere inguruko pertsonak bere hezkuntza-eskubidea erabili ahal izan balute. Halaber, eskolara joan izan ez balira beren bizitzekin zer gertatuko zen hausnar dezakete ikasleek.

Denbora


50 minutuko bi saio.

Bigarren Hezkuntza

Lehen-hezkuntzan eskolatutako haur-kopurua, eskualdeka (1998 eta 2002)

	Eskolatutako ikasle-kopuru osoa				Eskolatzetasa gordina		
	1998	2002	Aldea		1998	2002	Aldea
	(mila)	(mila)	(mila)	%	%	%	(portzentajeak)
Mundua	655.343	671.359	16.015	2	101	104	3,1
Garabidean dauden herrialdeak	569.072	589.291	20.219	4	100	104	3,6
Herrialde garatuak	70.399	67.880	-2.519	-4	102	101	-1,5
Trantsizioan dauden herrialdeak	15.872	14.187	-1.685	-11	101	106	-5,1
Saharaz Hegoaldeko Afrika	81.319	100.670	19.351	24	80	91	11,2
Estatu arabiarak	34.725	37.137	2.411	7	90	94	4,1
Erdialdeko Asia	6.891	6.396	-495	-7	99	102	2,7
Ekialdeko Asia eta Ozeano Barea	217.317	207.054	-10.263	-5	112	111	-0,6
Hegoaldeko eta Mendebaldeko Asia	158.096	175.527	17.431	11	95	102	7,4
Latinoamerika eta Karibe	78.656	69.498	-9.158	-12	121	119	-2,0
Iparramerika eta Mendebaldeko Europa	52.856	51.945	-911	-2	103	101	-1,8
Erdialdeko eta Ekialdeko Europa	24.484	23.133	-2.351	-9	97	99	2,1

Iturria: UNESCO, 2006. Guztiontzako hezkuntzari buruzko txostena, 2006



Yuleiniren istorioa

Petare auzoan bizi da Yuleini, Venezuelako hiriburua –Caracas– inguratzen duten mendixetan zintzilik dauden auzo pobreetako batean.

Amarekin, ugazaitarekin eta lau anai-arrebarekin bizi da Yuleini metal izurtu zatiekin, zurezko taulekin eta adreiluren batekin egindako etxe batean.

Egunez, Yuleiniren ama eta ugazaita lanean diren bitartean, 13 urteko neskatxa hau arduratzen da beste lau adin txikikoez: bazkaria egiten die sukalde zaharrean, arropa garbitu eta pareta gisa erabiltzen diren xafla metalikoetan zintzilikatzen du eta anai-arrebekin jolasean aritzen da etxearen inguruko hondakinetan.

Hala ere, 2004az geroztik, Yuleinik lehen inoiz egin ez zuen zerbait egin ahal izan du: eskolara joan da. "Eskolara joateak nire bizitza aldatu du, gauza asko ikasi eta lagunak egin ditut", dio Yuleinik. "Baina gehien gustatzen zaidana nire irakaslea da, entzuten didalako eta oso atsegina delako".

Yuleinirentzat ez zen batere erraza izan eskolara joatea. Bere amak 16 urte zituen Yuleini jaiotzean. Ez zuen Yuleiniren jaiotza erregistratu, eta Kolonbian utzi zuen, bere amarekin –Yuleiniren amonarekin–, berak Caracasen lana bilatzen zuen bitartean.

Amona hil zenean (2002an), Yuleiniren amak berekin, bere senar berriarekin eta lau seme-alabekin bizitzera eraman zuen alaba. Hala eta guztiz ere, Yuleinik jaiotza-ziurtagirik ez zuenez, ezin zuen eskolara joan. Hala, amak esan zuen Yuleinik ez zuela dokumenturik ez zuelako gurasorik.

Yuleinik zailtasun handiei egin behar izan die aurre bere bizitza laburrean, eta "gazte heldua" bihurtu da garaiz aurretik. "Eskolara joaten ez diren auzoko neska-mutilei zer gertatzen zaien ikusi dut", dio Yuleinik. "Itsasgarria usaintzen, dirua eskatzen eta istiluetan sartzen pasatzen dute eguna. Pena ematen didate".

Yuleinik badaki zer gerta dakiekeen pobrezian bizi diren eta hezkuntzarik jasotzen ez duten neska gazteei. "Ez dut ezkondu eta seme-alabarik izan nahi, ez behintzat oraindik", dio. Lan egin eta ikasi egin nahi du. Ezagutzen du 13 urteko neska bat, dagoeneko haurdun dagoena. Ez du horrelakoa izan nahi."

Iturria: www.unicef.org

Bigarren Hezkuntza



2. Ekintza: Hezkuntzarik ez jasotzeak zer eragin du herrialdeetan?

Erakutsi ikasleei bi grafiko hauek (*Europako Batasuneko herrialdeek hezkuntzaren arloan egiten duten gastu publikoa BPGren ehuneko gisa, 2001 eta Hezkuntzaren arloko gastu publikoa BPGren ehuneko gisa, 2001*) eta esan alderatzeko. Zer desberdintasun atzematen dituzte?

Eskatu ikasleei giza garapenari buruzko NBGPren txostena begiratzeko (www.undp.org/), eta lurralde-eremu bakoitzean hezkuntzan gutxien gastatzen duten herrialdeen NPG edo BPG zein den bilatzeko. Herrialde bakoitzaren gastu erreala dolarretan kalkula dezakete, eta aurreko datuekin barra-grafiko bat egin. Espainiari buruzko datuak ere grafikoa adieraz ditzakete, datuok kontuan izanda:

– *Espainiak Barne Produktu Gordinaren (BPG) %5,6 gastatu zuen hezkuntzan 2002. urtean (gastu erreala, 38,7 mila milioi euro).*

Alderatu gastu horiek Espainiako gobernuak guztientzako hezkuntza lortzen laguntzeko hartutako konpromisoarekin.

- *Sektore horri Garapenerako Laguntza Ofizialaren %8 ematea, gutxienez, Diputatuen Kongresuko Nazioarteko Garapen Batzordeak 1999ko irailaren 29ko ez-legezko proposamenean gomendatu zuen legez.*


Jarri grafiko horiek gelan edo eskolako korridoreetan, gainerako ikaskideek ere ikus ditzaten. Bestela, txosten bat egin, politikariei kaleko ekintzan emateko.

Halaber, politikariek onartutakoa –eta aurreko ekintza batean landutakoa– betetzeko egin beharreko gastuen egutegia egin daiteke.

Denbora


Bi minutuko bi saio.

http://portal.unesco.org/education/es/file_download.php/dc8c601dfd198d5d96cd25044f8e6a33grafico1.1.pdf



Iturria: UNESCOren HG 2006ri buruzko segimendu-txostena (bertsio laburtua).

<http://www.ince.mec.es/Indicadores%20Publicos/pdfs/rc1.pdf>



Iturria: Hezkuntza Sistemaren Ebaluazio eta Kalitaterako Institutu Nazionalaren txostena.

3. BLOKEA: Ekintza-garaia da. Hartu parte hezkuntzaren aldeko giza katean

Helburua

Guztientzako hezkuntza-eskubidearen eta antzekoen alde lan egiteko gai izatea.

Edukiak

Kontzeptualak

- MGH (Milurtekoko Garapen Helburuak).
- Guztiontzako hezkuntza lortzeko konpromisoak.

Jarrerazkoak

- Parte-hartzea.
- Inplikazioa.
- Erantzukizun soziala.

Prozedurazkoak

- Talde-lana.
- Dorsalak egitea.

Jarduerak

1. Hartu parte hezkuntzaren aldeko giza katean.
2. 2015erako eginbeharrak.



IKUS SEPARATA



Eskegi ezazu zure dortsala


Antolatzaileak:



ALBOAN



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Giza Eskubideetarako, Espelagarako eta Gizarteetarako Departamentua
Departamento para los Derechos Humanos, el Empleo y la Inserción Social



ETXERUZITZA ETA GEZARTE
GIZERTASUN SAILA
Gizarte Gizarteko Salburuzkeritza
Gizarte Lanbidekerako Zuzendaritza
DEPARTAMENTO DE BIENENDA Y
ASUNTOS SOCIALES
Viceconsejería de Asuntos Sociales
Dirección de Cooperación al Desarrollo